

Mikel Zárate Lejarraga



HIGIDURAN
BERDEZ

OLERKIAK



COLECCION PREMIOS LITERARIOS CIUDAD DE IRUN

HIGIDURAN BERDEZ



EDICIONES
DE LA CAJA
DE AHORROS
PROVINCIAL
DE GUIPUZCOA

e/19



Euskal Biblioteka Labayru



1021378

LITERATURA / N. 2661

MIKEL ZARATE LEJARRAGA

HIGIDURA BERDEZ,

La adiskidetasunarekin

Mikel

Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa
San Sebastián
1977

© de la maqueta, portada y texto:
Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa.
Editorial N.º Registro 936 C.E.C.A.
Depósito Legal: S. S. 802-1977
I.S.B.N. 84-7231-375-1
Impreso en Lit. Danona, S. Coop. - Oyarzun.

HIGIDURA BERDEZ

1976 urtean, "Ciudad de Irún" deituriko Literatur sariak seigarren aldiz antolaturik izan zirela, 1970 urtean hasirik.

Sei urteotan, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren ekintza honek, Irungo Udaletxearen laguntza osoarekin, poesia, idazlan, nobelagintza eta literatur arlo guztietan kezkatuak diren idazleei hildo berri batzu zabaltzen saiatu da eta beren lanak argitara eramateko bideak eskaintzen.

Sei urte hauk esperientzi interesgarri bat eman digute: zenbait hutsune betez, lehiaketaren oinarri batzu aldatuz, epai mahaia berrituz... etab. Azken finean lehiaketa honen pausoak egoera berriaren konpasean eguneratzeko.

Ba dakigu "Ciudad de Irún" Literatur Lehiaketa honek oraindik ere eguneratu eta eraberritu behar diren zenbait puntu ba duela.

1976 urtean irabazle izan direnen lanak argitara emanaz gure agindua finkatzen dugu egunetik egunera Gizarte honen helburuen zerbitzuan gure lanean jarrai nahi dugula.

Sarien inguru beti sortzen da nolabaiteko eztabaida; Garrantzi handiagoa du guretzat lan berriak sarituak izatea, Herriaren oniritzia jasotzea eta lanak argitaratzea.

Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala irizpide eta kritika guztietara zabalik aurkitzen da. Egitura oheagotzeko asmoz eginiko kritikak ongi etorriak izanen dira, literatur arloan bereziki, eta kultur-gintza eremu zabalean hasitako lanak burutzeko, gure Gizarte honen zerbitzuan.

Lan honek Euskal Poesiaren arloan Lehen Saria irabazi du. Xabier Aramburu, Jon Etxaide, José Antonio Loidi, Juan San Martín eta Ibon Sarasola Jaunak izan ziren epai-mahaikoak, 1976 urtean. Saria 125.000 pezeta izan zen. Lanak guztienez 800 bertso behar zuen; rima, neurri eta gaiaz inongo loturarik gabe.

*Adiskideei
eta etsaiei.*

HIGIDURA BERDEZ

*“Olermin aundi eder batek baigarabil euskoale
oro: aberri berriaren olerki giarra egin dezagun: idaz
dezagun guziok neurtitz bana, bederik!”*

(Lizardi)

HITZAURRE GISA

- “Yo soy Barayazarra”.
- “Yo soy Apraiz”.
- “Yo soy Laibarra”.
- “Ni... Pérez naiz”.

Hanitz eztabaida ta matraka sortzen ziren Larrugoienean deiturak zirela ta ez zirela. Zertaz ez? Anaia liskarti ta borrokalariagorik leku gutxitan!

Hauzoko Zezenlarru boteretsua ez-titan egoten zen Larrugoienean.

- “Nik gorria, berdea ta zuria”.
- “Nik gorria ta horia”.
- “Nik gorria”.

Koloreetaz ere hizka-mizka. Eta hirigintzaz? Hamaika moko-kaldi eginak ziren hortaz ere.

- “Nik hiria”.
- “Nik baserria”.
- “Nik batua”.
- “Nik sakabanatua”.
- “Nik berria”.
- “Nik bizia”.

Kaleen izenei buruzko liskardura ere hots haundikoa izan zen.

- “Nik Goienkale”.
- “Nik Eskuikale”.
- “Nik Erdikale”.
- “Nik Ezkerkale”.
- “Nik Barrenkale”.

Baina eztabaidarik haundienak garia ereitean izaten zituzten Larrugoiengo anaiok. Eta Zezenlarru esnetan eta bitsetan, poza-
ren pozez.

—Neuk ekarri dudan gari-hazia da onena. Dударik gabe.
Hauxe erein dezagun.

—Zurea onena? Baita zera ere! Horrek ez du ezertarako balio,
zaharra baita. Ikus ezazu nirea. Hau bai badela gari-hazi egokia...

—Baina garbitu gabe dago hori.

—Zertan ari zarete zuok orain, ordea, kokolook halakook!
Neuk dauzkat hor gari-hazirik onenak batuta.

—Baturik euki arren, zer? Batzen jakin behar da, lehenbizi, eta
zuk ez dakizu...

—Zuk haina bai.

—Zera dakizu zuk!

—Lehengo urtean ere neurea aukeratu genuen.

—Bai, egia. Eta halako garia bildu genuen. Hori ereitekotan
hobe...

—Entzun! Honela ibiltzekotan garirik ez ereitea izango litzate-
ke onena.

—Ken hortik, babalasto hori! Ez horixe. Nolakoa edo hala-
koa, erein egin behar dugu.

—Ereiten ahal du inork orain garirik...?

—Bai, oraindino bai.

—Zein ereingo dugu, ba, orduan?

—Hauxe.

—Hori ez, inola ere.

—Zuona batena ere ez. Neuk batu dudana da onena. Har eza-
zue ta erein.

—Ez.

—Zein, ba?

—Neurea.

—Ez horixe!

—Ezta...

—Neuk ekarri dudana?

—Hori ere ez.

—Ez.

—Bai.

—Ez.

Hura ere bazen konpondu ezina! Eta eztabaida horiek zirela
ta ez zirela, erein ere lehenago baino soro gutxiagotan ereiten
zuten garia.

Behinola, mokoka ari ziren bitartean, ostu egin zizkien Zezen-
larruk haziterako gari guztiak, ostu ta lurperatu bere etxe ondoan.
Eta gero, beste gari mueta bat erein zuen Larrugoiengo anaien
soroetan, beste gari mueta bat erein zuen, beste gari mueta bat
erein zuen... hau ez.

GELAN

NIRE GELA

Numenaren inguma,
isilaren atsegin,
mahai, liburu, luma...,
eta anitz zeregin.

MURGIL ZAITEZ

Antxinatasunaren
bazter usaiez
eta literaturaren
edertasunez...,
Urteen behingoan,
bizkaiera maite,
euskara batuan
murgil zaite.

Alfabetatzearen
bitartez.
etortxinzen
etortzen izan zen
eginez
eta *bapez*
bat ere ez,
neu ta hementxe,
zeu ta hortxe,
zagozkio,
gagozkio...,
urteen behingoan,
bizkaiera maite,
euskara batuan
murgil zaite.

Euskal joskeraren
ardatza koipatuz,
berrehun mila euskaldunen
hizketa batuz
eta hedatuz...,
urteen behingoan,
bizkaiera maite,
euskara batuan
murgil zaite.

NIRE LAGUN BAKARDADE

Udagoien ile urdin
nire edade,
nire gelan nirekin
bakardade.

Ez nago ni, ostera,
horren bakar;
zure bihotz barnera
berak nakar.

EZORDUEN ERDIMINEZ SORTUAK

Haize sorgintsuaren intzirina
iratxoan gaucan
eta eldarnio hozkirriak zirri ohean
idazminaren barnean...,
eta pentsatzen
eta kantatzen:
"Ezaren mindura
gure literatura,
baiaren gurari
niregan ernari,
ene higidura berdez
zuri begira,
ezorduen erdiminez
sortuko dira.

Epeltasun leunaren atsegina
gorputzean haserrekor
eta oroitza sukartuaren edari bizkor
irudimenean mozkor...,
eta pentsatzen
eta kantatzen:
"Ezaren mindura
gure literatura,
baiaren gurari
niregan ernari,
laztan gozoen hirritsez
gaueko lira,
hegatsaren maiteminez
letrak orrira.

BEREZ..., BAT ERE EZ

Barne eraginaren
etorriz
eta jakitearen
lan handiz
jira ta bira,
ikutuka
ta mailuka
sortuak dira.
Berez...,
bat ere ez.

ZERTARAKO...?

Rima gabeko
ritmoz,
ritmo gabeko
rimaz,
badatoz,
badoaz...,
zuri zerbait
esanez
ta emanez
nire barnea
asazkatzeko,
neu izateko,
zerbait eginez
ahaleginez
nire ni-a
niagotzeko
ta betikotzeko.

URKULKETA

a-b-d-ren
do-re-mi
ta gaiaren
0, 1, 2,
kolorezko
olerki.

NIRE BIZITZA

a
aldatze
gora
eta
aldatze
benera
nire
bizitza
h
egara
nurrera

b
ehin
batera
a
behin
bestera
h
egabera
heska
riena
ntzera

HILARGIAN...

Nire emozio
berezko irrati,
teletbisio...,
zorabio
nire ametsaren
gau emisio.

Begiak zilar,
doinu gozoaren
urre irripar...,
eta dardar
bozkarioaren
hilargi gar.

Eta hilargi,
zorion urdinez,
ene eden berri...,
eta argi,
batasun betean,
Euskalerrri.

Baina ametsaren
hilargi borobil
betea eten...,
eta lehen
bezala ohean
min hasperen.

NEUGAZ BIZI DA

Ez nion aterik zabaldu, ez,
ume aingeru nintzelarik,
gaztetako zoro aldiz.
Ate joka ibiltzen zen egunero baina,
ez nion aterik zabaldu.

Gero, gizonaren sasoiria eltzean
(neguko iluntze hotz baten ikaraz),
zabaldu egin nion atea,
osorik zabaldu nion...,
ta nirera sartu zen kezka
ta neugaz bizi da ordutik hona,
neugaz nirean bizi da.

EUSKARA

Europako lehen
hizkuntzen senide,
Aitorren semean
ulerbide!

Bizirik irauten
duzu oraindino,
nire bihotzaren
pozeraino.

Nire mihinaren
betiko emazte,
udara zaharren
lore gazte,

nire minaren min,
ene ederño maite:
gurean gurekin
egon zait!

UDAZ JOSITA

Uda-bèrri-uda-lehen-uda-asiera,
uda-aste-uda-iltzin-uda-raitzen,
uda-goien-uda-ondo-uda-azken-uda...
Udaz josita
dago euskara,
eta neguz
euskararen uda.

ONDASUNTEGI NASKAGARRIA

Pinu gehiegiz
pinuturiko
pinudi,
lehenagoko pitxiz
pitxituriko
baserri,
kalearen kalez
kaletutako
hiri,
hitz-jario lakarrez
lakartutako
irradi,
nire eztarri.

*Bageniezazu,
bageniezazkizu...
Hau larria!
Gaizki dut eztarria.
Zinatekete,
lekizkizueke...
Hau estua!
Aditz
bortitz
madarikatua!
Diezazkigukezu,
badiezazkizuegu...
Asaben ondare
mamua!
Armiarra sare
alua!
Ez irten ez sartu,
ezin arnasarik hartu.
Gintzaizkizuekeen,*

*geniezazkizuekeen,
ziezazkizuekeen...,
ele traketsa,
zintzaizkigukete...,
sukar ametsa,
liezazkizuekete
niezazkizuekeen,
hiezazkigukeen...,
ene bada ta ni!
Hala bedi,
amen.*

Irratiko
hiriko
baserriko
pinudiko
hitz-jario lakarrez
ta kalearen kalez
ta lehenagoko pitxiz
ta pinu gehiegiz
eztarria zait bete
ta itoko naute.
Ai!
Ez dut nahi
hilterik
gazterik!
Hau zorabio
ta eldarnio...!
Hainbeste era...,
zertarako?
Zuka, hika
(to ta no)
ta, gainera,
berorika?
Hau amets iguingarri!
Hau irudipen izugarri!
"Zer da hori?"

Traste zaharren museo,
aitonen mausoleo
ahal naiz ni?
Kanposantua?
Mutuaren kantua?
Azken fina
denontzat berdina
ta hilobi hotza
erdararen bihotza?
Betiko hilik,
isilik..."

Ken,
erraztu
ahalbait lehen
ta mehaztu
nire eztarriko
pinu sintetiko
ta laguntzaile
hiltzaile
diren
pinuak.
Ken
aspergarri
gogaikarri
diren
mamuak.
Egin
nirekin
presaka
entresaka,
ito ez nadin.
Egin
nirekin
presaka
entresaka,
bizi nadin.

HITZAREN BILA

Hitzaren bila
poeta dabila.

Hiztegiaren
mehatzeko
urrezko
hitza:
poetaren
bizitza.

Hitzaren bila
poeta dabila,
poeta gozakaitza,
hitzezko arkaitza.

LAUAXETA

Zidar zuriaren
bide berriak
arrats beheraren
urre gorriak.

Lehenaren garrak
barnean leher:
berritu zaharrak,
berriak eder.

Eder, berri, zahar,
nire atsegin;
zure urre-zidar
beti nirekin.

Odolezko lainoz
hildako arrats
egunsentiko poz
bizi aberats.

LIZARDI

Hitz neurtuen txalet,
hotsen musika
ta ritmoaren balet
zure lirika...,
zurekin ari naiz
amets hegaran,
zure udaberriz
nire udaran.

Edermin gogoa,
begiak ernai
ta gure txokoa
zure eder gai...,
zurekin ari naiz
amets hegaran,
zure udaberriz
nire udaran.

Zure idatz aro
garbi itoak
zuregan oparo
frutu gozoak...,
zurekin ari naiz
amets hegaran,
zure udaberriz
nire udaran.

Eguzki barnekoi
laino herioz
ta ederlanen goi
ondorengo poz...,
zurekin ari naiz
amets hegaran,

zure udaberriz
nire udaran.

Bihotz begietan
asaben herri,
lorategietan
arnasa berri...,
zurekin ari naiz
amets hegaran,
zure udaberriz
nire udaran.

Poeten eredu
zure gaitasun,
hilezkorren dedu
zure zutasun...,
zurekin ari naiz
amets hegaran,
zure udaberriz
nire udaran.

ARESTI

Nik bai, zuk ez,
ez nik, bai zuk...,
orain hogeitun urte
Arantzazun.
Nik bai, zuk ez,
ez nik, bai zuk...,
orain hamar urte
Deustun.
Baitez nik, ezetz zuk,
nik ezetz, zuk baitez...,
orain bost urte
Beasainen.
Ni bizirik, zu hilotz,
orain Derion.

Zure gorpuaren aitzinean,
ahal izan dudan ekinean
(zure ta nire baita)
Gure Aita
esan dut, Aresti,
kaleko arkaitz,
aurkako bidezti
kontentagaitz.

Gizarte kutsatueren
parnaso berriko
aitzindari,
hizkuntza urbanoaren
sortzaile taldeko
mailukari,
Harri eta Herri:
harritxo bat izan nahi nuke,
harritxo bat nik ere,
egunotan,
harrizko herri hontan.

UHAIN BERRI ETSIPENDUA

Olerki berriaren
tristura
nire bihotzaren
mindura.

*Nire lurra, nire anaiak,
ametsak nireak. Urteen zalapartan
orok galdu zuen
niretasunaren poza.*

*Jaungoiko guztiak ukatzen dituen
emakume bat naiz.*

*Aski dut gaurkotz letani latza;
bihotz mindurak eragindako
lelo garratza.*

*Itsas-ontzi aintzinako kobrearen metal zaharrak
ez du ene itxura tristearen tristura
eta plaia-hondar-hustuak udazkenean
ez du ene etsipenaren zapora garratza.*

*Ez aingeruk eta ez arranak
hemen ez du jadanik
egitekorik ezer.*

*Hil zaigu dena.
Eta poetak
uste
du
ezerk ez duela ezer balio.*

Oi gure denbora hunen desolamentua!

... eta beste mila
kinka, hots,
poeten
makila
kaden
ta mingots.
Erdi minetan dagoen
munduaren
garraisiak
eta antziak.
Kontzientziaren
higiduraz
eta etsipenaren
kutsaduraz
sortuak.
Beranduko esistentzialismuaren
kantuak,
euskal izate zapalduaren
oramahaian,
estuaren
estuan,
oretuak;
euskalkeriaren
aurka
mailuka
landuak;
erlijiokeriaren
saminez
suminez
piztuak...

Gure olerki berria:
etsipenaren odol-goitika larria.

Baina badute,
hala ere,
gure poetek,

luma amurratuaz
eta tinta garraztuaz
idazten
duten
profetek,
badute,
antza,
zerbaiten esperantza...,
idazten
jarraitzen
baitute.

Olerki berriaren
tristura
nire bihotzaren
mindura.

EUSKAL LITERATURAREN HARROKERIA

Etxe ederrak dituzte,
etxe ederrak
nire auzokoek...,
ta zenbat lorategi
ta zuhaitz nabarmen!
Zenbat kotxe,
zenbat ondasun,
zenbat jende!
Zenbat aberats
ditudan hemen,
mutilzahartu zaidan
txabolari parrez...!
Eta mindu
egin naute
aberats harroek,
ta harrotu egin naiz
ni ere
ezinaren ezinez:
“Pobrearen egoera
zuena baino hobe!
Nik ez dut inoren
ta ezeren
beldurrik.
Niri ez didate
Ez.
ostuko ezer.
Ezin niri
lapurretarik
egin.
Hale!”

BASERRIAN

NIRE BASERRIA

Ez dago
lehenik
gabeko
orainik,
eta nik
baserriaren
baso usaia
dut orainaren
muin sustraia.

BERDINTASUN EZBERDINA

Nagiak atera
ta burua gora,
jaiki da
baserriko
egunaren
despertadora.
Eta Europako
haizearen
uhainetan,
gizonen
belarrietan
sartu da
oilanden
sultanaren
kantu ozena.
Ta kukurruku,
ta "quiquiriqui",
ta "cocorico",
ta "kikeriki",
ta...,
goizeko
hitz gabeko
kantu berdina...,
ezberdina
bihurtu da,
bat batetan,
gizonen
belarrietan.

BALET ZORAGARRI

Urdinaren pozetan
txoriak kantari,
haizeari musuka
dantzan larrosa bi.
Argi eta kolore,
usai eta bizi,
udaberri goizeko
balet zoragarri.

PINPILINPAUXA

Udaberriak negua uxa,
agertu zaigu pinpilinpauxa.

Pinpilin pinpirin
pinpirina,
txintxilin txintxirin
txipirina.

Ortzadar bizi, begi atsegin,
hegaldari den lore erregin.

Pinpilin pinpirin
pinpirina,
txintxilin txintxirin
txipirina.

Berrehun izen dituen adur
haize leunaren eztitan samur.

Pinpilin pinpirin
pinpirina,
txintxilin txintxirin
txipirina.

Hauts biziaren poz higidura,
lore maiteminduen lilura.

Pinpilin pinpirin
pinpirina,
txintxilin txintxirin
txipirina.

Dantzari lirain, pitxi erromes,
uzta onaren eskeintza promes.

Pinpilin pinpirin
pinpirina,
txintxilin txintxirin
txipirina.

Pinpilinpauxa isil ta bigun,
olerkarien betiko lagun.

Pinpilin pinpirin
pinpirina,
txintxilin txintxirin
txipirina.

NOLAKO DURUNDU DUEN!

*Behin baten,
ikazgin zahar bat
bizi izan zen...,
amonaren
leloak nolako
durundu duen!*

Neguko hotzez
zirritaka sua
begira minez...,
eta pozez
ni amonarekin
ume ametsez.

Suzko sorgin
xarmantaren dantza
berdin ezberdin...,
katu mixin
olgetariaren
lo kuku arin.

Ituxura
negarbeheraren
hotsen lilura...,
ta logura,
ipuien laztanez,
nire barrura.

Eta altzoa
kuma biziaren
uhain ritmoa...,
ta leloa
aingeru loaren
muga gozoa.

*Behin baten,
ikazgin zahar bat
bizi izan zen...,
amonaren
leloak nolako
durundu duen!*

JAUN MORROIA

Kanpaien otoitza
haizearen tristuran,
kandela biren negarra
iluntasunean,
Abenduko bi euliren
likintasun iguingarria,
hasperen larriak,
heriotzaren hotza...,
hoztu
zaizkio
oin
luze
lehor
arrakalduak
eta
sudur
luzanga
zorroztua
gizon zahar
gizaxo bati,
inoren baserriko
etxejaunari.
Hil da
izadiaren jaun bat,
hil da
gizartearen morroi bat...,
eta
hileta
kantu mailukari bat
oihartzundu zait
barnean
udaberri negutuaren
hozkirrian.

LAINOAK

orriok
iluntzen
dituzten
lainoak,

nire bihotzaren
beldur ikara
diren lainoak,

laino
handiak
eta
txikiak

higidura berdea
beltzuraz margotzen
duten laino ibiltariak

nire bizitzaren udazkeneko
haizetan datozen eta doazen
kezka eurizko lainoak,
eguzkia ezkututzen didatenak
ene barnean daramadan haurtxoaren
itxaroan;

gaixoz
jantziriko
zahartzaroko
lainoak

heriotzaren
beldurra
negar horitan
dakartenak,

lainoak, lainoak ditut,
lainoak nire aurrean
beti.

ASTOA!

Astoa...!
Endekatu egin dugun hitza,
bazterturik dugun
lagun baten izena;
gure poetek
(hiriko kaleetako
kutsaduraren kotxeetan
eta trolebusetan
dabiltzan poetek)
ahazturik duten
filosofo jatorra.
Astoa...!

Begi diztikorren tristura
bere burutzar iletsuan,
sagar baten gerizpetan dago
niri begira.
Belarri biak zutik,
geldi-geldi dago,
pentsatzen,
pinpilinpauxa, mandeuli
ta txorien erdian.

Astoa...!
Alegietako astoa,
esne gozodun astoa,
asto langile, eroapentsu
ta zentzuduna,
lau hankako ameslaria,
pobreen zaldia,
landa, soro ta bideen
adiskide zaharra,
kale eta kaminoen

adiskide izanikoa,
gizonaren
lehenbiziko Vespa
bizi ta segurua,
zaharren eta gazteen
lagun zintzoa...
Astoa...,
gizon onaren
irudi bizia.

BALIZKO OLAREN OIHARTZUNA

Banu ta banintz,
ezaren irrintz;
bazenu ta bazina,
ametsaren ezina;
balu ta balitz,
mutuaren bi hitz;
bagenu ta bagina,
alperreko ahalegina;
bazenute ta bazinete,
asmo hutsa ezin bete;
balute ta balira,
besteen anaiak dira.

BERA EZ DAGO, EZ

Baztertxo hortan egoten zen eserita,
baztertxo hortan egoten zen murmurrean
(hezur ta azal, ximel-ximel, hilotz bizi,
kronista zahar, lehenaren zabaltzaile,
nire erlijio, euskara ta Euskalerra),
hortxe egoten zen beti nire amona...,
baina ez dago. Ez dago, ez, orain hemen
urte askotan maite izan nuen hura.
Hementxe daude bere gauzak (hotz ta triste,
bertan behera bazterturik): zapatillak,
orratza, aria, ditarea, artaziak,
antiojuak (kinkaileru zahar bati
orain hogeitau ta hiru urte erosiak,
kristal nabarmen haietara eratzeko
bere begiak, okulista batek inoiz
ikusi gabe hil zirenak). Bere gauzak
hementxe daude, baina bera ez dago, ez.
Bere ohea, orrazia, guanteak
ta adrilua (bere hankak berotzeko,
oso hozbehera txikitatik izan baitzen).
Hementxe daude bere gauzak, baina bera
ez dago hemen. "Betiko ez gare eta
—esaten zidan— eldutako madaria
jausi egiten da, jausi, bai, ene maite."
"Ez, amona" —nik erantzuten—, egiaren
dardara irripar batean ezkutatuz.
Baina, ai ezbeharren ezbeharra!,
esan bezala erori zen gaixoa
eta ez dago hemen, bere baztertxo hortan,
ez dago. Bere gauzak diote...

BIDEKO BELARRA

Turroi bihurturik
harri ta galipot,
tarteko belarra
laztanki maite "dot".

Berebil burpila
gainetik zarraztan,
bideko belarra
gutxik dute laztan.

Belar hori-berde,
bideko belar on,
bizi nahiaren
,bultzakada sakon,

arbuatuaren
entz-irudi mingar!
Gure herri zaitut,
gure herri zahar.

Zuk eman didazu
indar ta adore,
zugatik bihurtu
nire luma lore.

Lore nire luma,
bihotzean samin,
harrizko bidea
lozez bete ezin.

BELTZ ETA ZURI

Margo beltz zabal
itun eta hotz,
hutsaren itzal,
ezaren bihotz.

Zuri betearen
argizko margo,
ortzadarraren
kolore elkargo.

DERIOKO KANPOSANTUAN

Hilerri hontako pake larrian
nire bihotza urduri,
ez dut nahi
hilotzen pake hilik.

Hemen ez dago
zapaltzaile ta zapaltzailerik,
berdinen ezberdintasunik,
ezertariko arriskurik.
Hemen ez diete zuriek
gorriak ikusiarazten
beltzei
edo gorriei.
Kale kutsatuen arteko
giza-artaldean garrasirik
ez da entzuten;
burruka gorriaren
haserre saminik,
inbidi begiluze horiaren
erreminik,
maiteminduen sukarrik,
tradizioaren kontradiziorik,
euskara batuaren arazorik...,
ez dago hemen.
Pobrea ta aberatsa,
handia ta txikia,
zuria ta beltza,
ona ta gaiztoa...,
denak berdin.
Hemen ez du
ezer balio diruak,
jakituriak,
aginpideak...

Baina ez dut nahi
honelako pakerik,
pake hil larririk.
Pake bizia nahi dut.

IRUDI BIZIA

Berrogei mila oilo ikusi nituenean,
barrogei mila oilo, granjako elkartean,
beldur haundi bat sartu zitzaidan bihotzean.

Epelkeriaren giro neurtua gerizpetan
eta arriskurik gabe kaiolako paketa...,
uztarpetuen tristura oiloen begietan.

Berrogei mila oilo ikusi nituenean,
berrogei mila oilo, granjako elkartean,
beldur haundi bat sartu zitzaidan bihotzean.

HIRIAN

NIRE HIRIA

Giro berrien
erdimez
agertu zintzaizkigun
hiri urduria:
Gizabideen
bake pozez
nahi zaitut, euskaldun,
Bilboko hiria.

MAITE DUT LEHENGO EUSKALERRIA

Maite dut lehengo Euskalerria,
nigan bizirik dagoen Euskalerrri zaharra.
Txotxolotasun zoro atsegintsuz maite dut,
bihotz ameslari baten taupaden bultzadaz.
Gaurkoa izan nahi dut baina,
maite dut lehengoa.

Zahar egin ote naiz igarri gabe...?
Mindurik nauka ezbaiaren ezten zorrotzak.
Benetako Euskalerrri zaharra
ametsezko Euskalerrri bihurtu ote zait...?
Mindurik nauka ezbaiaren ezten zorrotzak,
hiri kaletsu hontako zirriparra larrian.
Baina ezin naiz bizi hura gabe
ta premiazkoa dut neu izateko.
Ura ta arnasa bezala,
premiazkoa dut gaurko Euskalerrria ezagutzeko,
gaurko mundu berria euskal eraz berritzeko,
oraingo ahalegin ta aurrerapide neketsuetan
geroaren amets itxaropentsuz jokatzeko.

Aitona ta amona maite-maite izan nituen,
maite izan nuen haien zahartzaroko haurtzaroa,
ezagutu ahal izan nuen haien mundua
baserriko haize osasuntsuaren altzoan,
zintzotasunezko lan gogorraren izardiz,
Jainkoaren itzalaren beldur santuz,
ipui ta alegi zoragarrien irriparez,
euskara onaren iturriko murmur gozoz...,
eta maite dut lehengo Euskalerrria,
nigan bizirik dagoen Euskalerrri zaharra.
Txotxolotasun zoro atsegintsuz maite dut,
bihotz ameslari baten taupaden bultzadaz.

Gaurkoa izan nahi dut aina,
maite dut lehengoa...,
eta neurekin daramat,
ene barneko haurtxoaren
oroimenean itsatsirik,
neurekin doa,
kalerik-kale,
hiriko hizkuntzaren erditzean,
mila, bederatzirehun
ta hirurogei ta seigarren urteko
berbizte udaberritsuan.

HIRIKO ETXE HAUNDI BAT

zementozkobasamortujendetsua
basamortuzkojendezementotsua
jendezkozementobasamortutsua
zementozkojendebasamortutsua
basamortuzkozementojendetsua
jendezkobasamortuzementotsua
zementozkobasamortujendetsua
basamortuzkojendezementotsua
jendezkozementobasamortutsua
zementozkojendebasamortutsua
basamortuzkozementojendetsua
jendezkobasamortuzementotsua
zementozkobasamortujendetsua
basamortuzkojendezementotsua
jendezkozementobasamortutsua
zementozkojendebasamortutsua
basamortuzkozementojendetsua
jendezkobasamortuzementotsua
zementozkobasamortujendetsua
basamortuzkojendezementotsua
jendezkozementobasamortutsua

zementozkojendebasamortutsua
basamortuzkozementojendetsua
jendezkobasamortuzementotsua
zementozkobasamortujendetsua

HOR DAUDE...

Hor daude
oraindino ere
Mesopotamiako ziguratak,
Egiptoko piramideak,
Yukatango tenploak
ta Txinako arresia
egin zituzten pioiak.
Hor daude
oraindino ere
Atenasko Partenon,
Erromako Coloseo
ta Espainiako Escorial
egin zuten pioiak.
Hor daude
oraindino ere
katedralek,
jauregiak
ta zerurainoko etxe haundiak
egin zituzten pioiak.
Hor daude
oraindino ere
eguzkiak
eta lanak
zapaldiriko pioi gazteak
eta zaharrak.
Hor daude
betiko izardi ta egarriaren
berdintasunean,
betiko jauntxokeria indartsuaren
joputasunean,
ni Algortan,
orain urteak,
pioi izan nintzeneko lagunak.
Hor daude...

JENDEA ETA HERRIA

Hor dago,
hor dabil
jendea:
artalde,
uholde,
nortasun gabea.

Hor dago,
hor dabil
herria:
gizarte,
elkarte,
nortasun zalea,
zurea,
nirea,
gurea.

INURRI-PILO PIRAMIDETUA

e
zu
batu
tabota
gizarobota
batubotatabete
botatabeteporlanez
harriburdinatazaborraz
anuntziotakolorenabarmenez
etxekalelantegisiglaetazarataz
botaetadenabeteinurripiloitxuraz
betearineketakutsaduraetaestukuraz
botatabotaetabotaetabotainurripilora
urhaizeirrikitutabizirikereegonez dadin
momiaturpiramidetutahilobituz urehirihoriarin
etagizonafamiliaherriaegitekoberrizzoazbasora

LORE BI ZIMELDU ZIREN

Beherantz
zetozen,
aldaparen
bizkarrean
tximistaren
zorabioan,
kotxearen
txanelan,
buelta ta
errebuelten
uhainetan,
bihurgunerik
bihurgune,
ezkonberri
maiteminduen
zoroaren
ametzezko
kardantxiloen
txiruliru
koloretsuen
hegoetan
abiadan,
sugelandare
urdurien
antzera,
maitasun
gozoaren
berotan,
igurtzika
ta besarka
beherantz,
haizearen
eta hautsaren

bihotzetik,
baterantz,
besterantz,
beheak behera,
maitasun
gaztearen
pozezko
musua...

o
d
o
l
et
an g
du
l
zen

e
t
a
bide bazterrean
lore bi
zimeldu ziren

ARDOAREN DOINUZ

Ardoa...!
Ardoaren
gozoaren
gozoa!
Gozoaren
zoroaren
zoroa!
Zoroaren
leloaren
leloa!
Leloaren
txiroaren
txiroa!
Txiroaren
mitoaren
mitoa!
Mitoaren
ardoaren
ardoa...!

BADUGU HORTARAKO ARRAZOI TRISTERIK

Ardo gozoaren lilura
euskaldunon sorgin,
ardozeak gara gu
betirik...
“Zergatik?” diozu, txo?
Badugu hortarako
arrazoi tristerik.
Ardoaren zorabioan
galdu omen dugu
euskaldunok indarra,
ardoaren baleta
omen da
gure historia,
ardoaren hondarra
gure kultura...
Ardo gozoaren lilura
euskaldunon sorgin,
ardozeak gara gu
betirik...
“Zergatik?” diozu, txo?
Badugu hortarako
arrazoi tristerik.
Opioaren ametsetan,
parrezko negarretan,
zapaldu ta zapaltzaileak
berdindu
ta gure atsekabeak
aldendu,
ardoak arantza
larrosa
bihurtzen du.
Lau begi ta oinik ez,
leheneratu

gizon ta andre,
ardoa dugu
herri askatua,
hizkuntza batua,
tximino mundu
drogatua.
Ardo gozoaren lilura
euskaldunon sorgin,
ardozeak gara gu
betirik...
“Zergatik?” diozu, txo?
Badugu hortarako
arrazoi tristerik.

ZOROAREN MOZKORRA

Kamioitik kajara,
ibai oliotuaren ondoan;
kajatik poltsara,
haize kutsatuaren kolkoan;
poltsatik eskura,
zarataren kontziertoan...,
eta murmur dardartia
irudimenean,
ideia ta musikaren ezta
parnasoa jai,
etorri zoro mozkortia
barnean,
iraultza bezela,
nahasi-mahasian,
parnasoko iturrian
olerki-zizela
zorrozten,
esnea ta patatak biltzen,
saldu ta erosi
eta bizi...,
markatu,
supermerkatu,
nazionalak,
multinazionalak,
arranoen gisa,
ta pobreen prisa
ta tripalak
behera, gora,
eskutik ahora
platanoak,
oiloak,
piperra ta tomatea,
txokolatea,

kanpora ta barrura,
mingotsaren gozoan
salerosketaren ituxura
zementozko inurripiloan...,
eta numeroak eta kontuak,
hitzak eta letrak,
sagarra ta madaria,
legatza ta aragia,
aza,
kalabaza,
arana...,
hiriko
makinen
ritmo
matematiko
arlojutuen
hurakana...,
esklabo teknikoen
materia
izpiritu
bihurtu
da...,
“¡Jebo!”,
esan dio
erdaraz
(erdalduna bakarrik da jebo
euskaraz)
eta bost hogerleko
ta ehun pezeta,
urdai-azpiko
ta gailera,
administrazioaren
engranajea,
sindikatoen
katea,
ekonomiaren
palankak,

estrukturen
erreforma,
horma ta horma,
hilargian hankak
lurpean burua,
astronauten abiada
urratuz zerua...!
"Zu, lagun,
gure estomagoa...".
Adiskidetasun
abstraktoa!
Simaur balde
utopikoaren
betiko galde...,
elkarrizketa
ta banketa...,
eta goizalde
batez ihardespen
faltso talde.
Gosea, gosea, gosea,
multinazionalen ondorea.
Arto, gari,
baratxuri
ta porrua,
tanke ta grua...,
bolkanaren gainean
egon ezinean
(batuago,
baina ez urbilago;
gehiago
baina ez hobeago)
oxigenorik gabe...,
eta jaun ta jabe
astronauten zeruan
arrano zapaltzaileak
eta behean,
nora ezean,

zapalduak,
lutuak,
gurina,
pipermina,
txitxarro ta sardina...,
eta zakurren eboluzioa
bildotsen erreboluzioa...,
"Apur dezagun arraultza
ta gora iraultza!
Estrukturak aldatu
ta gosea kendu,
gosea, gosea, gosea,
multinazionalen ondorea".
Eta, eta, eta...,
merkatu,
supermerkatu,
nazionalak,
multinazionalak...,
eta beti berdin,
pobreen tripalak,
alperreko ahalegin,
hilargian ezin
arnasarik hartu...,
eta
ideia
ta musika
dibortziatu.

TREN MINGARRIAN

Joatearen
joate
geldi
astitsu
etengabea,
joatearen
joate
bizi
azkar
arin
laisterrean,
badoa
badoa
badoa
denbora
aldia
gunea
sasoia
garaia
nirekin batean,
banoa
banoa
banoa
denbora
aldi
gune
sasoi
garai
atergabe
honekin batean,
bagoaz
bagoaz

bagoaz
joanean
joanean
joatearen
tren mingarrian...

UDAZKENA EGONGELA BATEKO KUADRUAN

Euskaldun pintore
eta poetaren
adore,
urdin eta more
udagoienaren
kolore.

Kantuz eguzkia
argi epeletan,
haize ta euria
sorgin dantzaketan.

Zuhaitz biloizia
euri negarretan,
urrezko txoria
hegaran haizetan.

Baserri txikia
urrun lurratsetan,
hango familia
amets ametsetan.

Euskaldun pintore
eta poetaren
adore,
urdin eta more
udagoienaren
kolore.

EGIN LO...

*Ttunkuttunku, ttunkuttunku,
kunkuttun kuttuna;
ttunkurrunku, ttunkuttunku,
ttunkurrun kuttuna.*

Lo dago txoritxo
kaiola barruan,
lo dago katutxo
zure esarlekuan...,
zuk ere egin lo,
ene kutuntxo!

*Ttunkuttunku, ttunkuttunku,
kunkuttun kuttuna;
ttunkurrunku, ttunkuttunku,
ttunkurrun kuttuna.*

Kotxea ta kamioia
lo mahaipean,
lo txistu ta baloia
arasa gainean...,
zuk ere egin lo,
ene kutuntxo!

*Ttunkuttunku, ttunkuttunku,
kunkuttun kuttuna;
ttunkurrunku, ttunkuttunku,
ttunkurrun kuttuna.*

Bihar ere zurekin
joango naiz parkera
zisne ta pavoekin
pozik jostatzer.
Bihar ere...,
bihar arte.

KANARIO BATI BEGIRA DAGOEN MUTIKO BAT IKUSTEAN

Musu urdin bat eman dio laztanki zirimiri epelak
kale kolorgaren balkoi beltzean
zintzilik dagoen klavelina pertxetari...,
ta usai zurizko irriño eztiz igortzi du klavelinak
kaiola pitxi batean kulunka ari den kanario otzana...,
ta kanarioaren bozkario horiak amets orlegiz bete
liluraz so egiten dion aingeruaren barne xaloa...,
ta, arrats behera honen samurrean,
udaberri itxaroz berpiztu zait
gerratearen burrunbada gorrian hildako haurtzaroa.

BILBOKO SERENU BATEN EMAZTEAREN
SEASKA-KANTA

Hotza ta iluna
dago kalean,
aitatxo kutuna
hantxe lanean...,
guk ogi biguna
bihar goizean.
Egin lo, polita,
begiak itxita.

Beti lan egiten
aitatxo gauez,
lo egin dezaten
besteek pakez...,
ta amatxo zu zaintzen
gau ta egunez.
Egin lo, polita,
begiak ttxita.

AZKENEAN...

Puntaren puntan
punta zorrotza
zuen
lapitzak.
Baina puntaren puntan
punta zorrotzagoa
behar omen
zen.
Eta zorrotzu
ta zorrotzu...,
lapitza txirlora
bihurtu zen.

IKASTOLARIK ONENA

Maiteminduen arteko
amodiozko hitz gozoak
edo haserrezko hitz garratzak
euskaraz esanez gero,
seme-alaba euskaldunen
espero.

“HAURRAK LAKOAK IZATEN EZ BAZARETE...”

Burrukan ibili dira
kale bazter batean
haurtxoak
baloi bategatik;
burrukan ibili dira
kale bazter batean
gizonak
kamioi bategatik.

Gero...,
burruka ahaztu ondoren,
atseginez
ta amets gozoz
joan dira
ohera
haurtxoak;
burruka gogoratu ondoren,
atsekabez
eta gorrotoz
joan dira
ohera
gizonak.

“AURREA HARTUKO DIZUTE JAINKOAREN
ERREINUAN”

Hamburgoko *Hotel Palace* argitsuaren
gibel alde ilunean
ikusi nuen,
udako iluntze batean;
jantziño gorriska bat zuen
soin guriaren gainean;
eta ile horiz
ta begi beltzez,
bular irtenez
ta istar lodiz,
zerbait esan zidan,
bigun,
alemanez;
keinu egin zidan,
lizun,
“universalez”.

Udako mandeuli
mutiri
bezala,
hiru hitz zatar
belarrian burrunbari
berehala:
Ematxar.
emasaldu,
emagaldu.

Ematxar...?
Gizatxarren
baten
sukar.

Emasaldu...?
Txuloren
baten
jopu.
Emagaldu...?
Nork ote zuen,
pentsatu nuen,
erru.

MAITEMINDUEN LORE AMESLARIAK

Nire begietan
zure begi nini,
maitasun garretan
nengoen ni.

Maitasun garretan
bihotza erditzen,
zure begietan
jaio nintzen.

Biok elkargana,
biok elkarrekin,
begien imana
poz atsegin.

Neurea zaitut zu,
zeurea nauzu ni,
bitan bat gaituzu,
batetan bi.

Ai, nire Maiteder!
Zer esango dizut...?
Zu gabe ez naiz ezer,
maite zaitut.

MUSU HURA...

Geroaren beldurra,
agurraren samurra...,

musu bat eman ninan,
musu bat eman hidan.

Suzkoa hire musu,
ene bihotzean su.

“Agur, ikusi arte...!”,
geroztik hogei urte.

Hogei urte oroitzan,
hirekin ni bizitzan.

Gero ta hi urrunago,
enean eneago,

musu hura izan dun
hire ordezeko lagun.

Oroitzaren pozetan
musu hura garretan,

ta nigan hi, maiteño,
ni bizirik naizeño.

BETEAREN EGARRIZ

Historiaren zama
bizkarrean,
etorkizunaren poz
aintzinean,
aldi ta tokiaren
arroztetxean
zaude,
gaude,
 zoaz,
 goaz,
 betearen
 egarriz
 zatoz,
 gatoz,
 hutsaren
Iarriz,
zaude,
gaude,
 zoaz,
 goaz,
 zatoz,
gatoz...

KOTXEA

Teknika jakintzaren
aitzinamendu
gizonen bihotzaren
liluramendu.

Boteretsuen indar
eta ohore,
margo bizen pindar,
hiriko lore!

Ibiltarien bulego,
etxe ibiltari,
maiteminduentzako
ohe dantzari!

Kutsadura ta hotsen
iturri begi,
izurrite berrien
hilkutxa berri!

Teknika jakintzaren
aitzinamendu
gizonen bihotzaren
liluramendu.

BILA NABIL, GIXAXOA!

blo	etakale	blokeetakaleak	blokeetakaleak
blok	etakal	blokeetakaleak	blokeetakaleak
bloke	etaka	blokeetakaleak	blokeetakaleak

bloke	kale	blokeetakaleak	blokeakalea
bloke	kale	blokeetakalea	blokeakaleak
bloke	kale	bloke	blokeakaleakb
bloke	kale	kale	blokeakkaleakb
bloke	kale	blokeetaka	blokeakkaleakbl
bloke	kale	blokeetak	blokeakkaleakbl

etani	arnasa	bilazaharbat	emateko
etani	txori	bilahaurñobati	erakusteko
etani	lore	bilaneskatobati	erregalatzeko

etani	euskaldunbatenbila	euskar aegiteko
etani	euskaldunbatenbila	euskar aegiteko
etani	euskaldunbatenbila	euskar aegiteko

HIRIKO LIBELULA

Oi ventiladoraren
irriparrezko
putz pozgarria!
Zein atsegina den
kale arteko
bero irakinean
kafeteria
koloretsu
ta dotore
hontako
libelula horren
hegada geldia!
Mariorratz
haizegile
gozatsua,
kutsadura
ta zaraten
zuritzaile
txeratsua,
loxintxaz
laztantzen
izardia
ta penak.
Oi zein gozoa den
hiriko libelula
lotu horren
hegada geldia!

PENTSAMENTU TXARRA

Biloizkeriaz jantzi zuten
biloizkeria begitan duten
gizaxo itsuek.
Eta zuek
niri eman
aingeruen goizean.

Lirdinga ta likits
(grina txarraren bits),
pentsamentu txarra
bakarra
zen
orduau
irudimenaren
ziegan.

Maite-zoro,
egunoro,
jarri ninduen...,
ta biloiztu egin nuen,
bat-batean,
gizonen eguerdian.
Biloiztu egin nuen...,
ta biloizkeria kentzean,
dardara bihotzean,
naskagarri
ta izugarri
bihurtu zen
maiteena,
bat uste nuena
asko bai ziren:
Hau beheratzeko
gurari,

hori salatzeko
nahiari,
hura hiltzeko desio,
irudimenezko madarikazio...

Biloizik eraman diet
gizaxo itsuei,
biloizik ematen dizuet
zuei.

POMPEI

Vesubioren amorruzko su goitiko
kiskalduriko ahalegin, amets ta poz...!

Pompei zahar, hiri mindu ta mingarri,
harri urtuzko hilotz hondar harrigarri!

Tragediaren egiazko antzeztoki,
museoturik bizi zaren hiri-hobi!

Nire herria irudimen itunean,
Vesubioren beldur naiz zu ikustean.

BILBO ZAHARREAN

Odolezko xurrut
ilunabarretan
zoramendu,
su irakina dut
zazpi bihotzetan
sofrimendu.

Botxoaren larru
bloke arrotzaren
kuadratura,
jendetzaren barru
bakardadearen
kexadura.

Hileta kantuka
zazpi txori nabar
eta arrotz,
oroitzaz mailuka
zazpi txinbo zabar
nigan hilotz.

Bakardadearen
inguru hertsian
itzal trakets,
izangokoaren
itxaro larrian
mozkor amets.

Odolezko xurrut
ilunabarretan
zoramendu,
su irakina dut
zazpi bihotzetan
sofrimendu.

LILI AMETSETAN

Su,
ur,
hats,
lur,
gora ta behera...,
betiko itzulera.

*Eguzki ta euri,
marti eguraldi,
edozein haizetan
edozein lurretan
bizitasun berri...,
hiriko dendetan
plastikozko lili.*

Hitz
hotz
huts
motz
ugari
nire ezpainetan
betiko...
...tiko
leloaren...
...aren
oihartzunaren...
...aren
negarretan,
plastikozko olerki
nire orrietan.

HALA ERE...

Baserri kulturaren
hasperen itun,
betiko leloaren
agonia iraunkorraren
oihartzun:
“Nahiz eta ahalegindu
gizaldien
gizaldietan
gure mendien
barrenetan...,
gureak egin du...
...egin du.
Zereko
(badakizu nongo)
zeraren
(badakizunaren)
zera
(bera)
hil dute,
pertsonak hiltea
baino hobea
ez dena:
sena
hil dute
berrogei urtetan
negute
luzearen
nahi ta nahi ezko
pakezko
larriaren
beldurretan
eta
nahiz eta

ahalegindu...,
gureak egin du...
...egin du...”,
eta bat, bi, hiru eta lau,
betiko leloaren
zurrunbiloaren
zurrupak irentsi nau.

Zurrunba,
burrunba,
erremola,
zirimola...,
dardar
negar
esaten
ta idazten:
“Hasieraren hasiera?
Hasieraren azkena?
Azkenaren hasiera?
Azkenaren azkena...,
azkenaren azkena...?”.
Eta higidura berdezko
ahalegin
begi-bihotzen zetabean,
etsipenezko
sorgin
ene barnean
altzairu ta porlanezko
etxeorratzen
itzalean.

Hala ere..., hiriko kutsadura iguingarriaren pozoinez hiltzear dagoen nire etorri erdimintsuaren azken arnasaz, kale arteko baserri kulturaren errai etsipenduetan..., hala ere, loreño bat nini-katu zait euskarazko fenix zaharraren hautsetan, egundaino argirik eta pozik ikusi ta dastatu ez duen loreño berri margul bat, bakuntzaz klitxeturiko loreño sendo bat..., eta usai, kolore, eder-

tasun ta humorearen hirritsez dudan loreño horren itxaropenezko geroaz maitezoraturik, kantuka hasi naiz inprenta bateko amets ikuspegian, baserri-doinu zahar baten haizetan.

“Lore, loreño, lore
lerden eta alai,
moldearen kolore,
forma ta usai.”

Ene hiriko kultura
erditze minetan,
moldearen mindura
pozezko loretan.

“Lore, loreño, lore
lerden eta alai,
moldearen kolore,
forma eta usai.”

Paperezko orrietan
hiri-lore anitz,
kale eta auletan
hiri-lorezko hitz.

“Lore, loreño, lore
lerden eta alai,
moldearen kolore,
forma eta usai.”

Hiri-lorezko hitzez
hiriko hizkuntza,
eragindura berdez
loreen bakuntza.

“Lore, loreño, lore
lerden eta alai,
moldearen kolore,
forma eta usai.”

HITZATZE GISA

Eraman ezazu haizetara,
eraman ezazu eguzkitara,
eraman ezazu baserrira
eta hirira,
ikastoletara,
etxeetara,
irratira,
telebisiara...,
edonora.
Baina ez sartu,
mesedez,
faborez,
inongo bitrinatan;
ez lurperatu
sekulan santan.

EDICIONES

de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa

COLECCION "GUIPUZCOA"

- 1— **Guipúzcoa.** Antonio Epelde, Serapio Múgica, Jesús Elósegui, José Miguel Barandiarán, Fausto Arocena, José de Arteche, Ignacio Pérez-Arregui, José Ignacio Tellechea, Luis Micheleña, Antonio Zavala, Luis Villasante, Miguel Pelay Orozco, Manuel de Lecuona, Javier Bello Portu, Ignacio Barriola, Jesús María de Arozamena, José María Busca Isusi. (Agotado).
- 2— **Así es la Caja.** (Libro de empresa de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa).
- 3— **Giza-Bizia. Diccionario Anatómico Bilingüe.** Carlos Goena, S. J.
- 4— **Origen y evolución de la pintura vasca. Euskal Pinturaren sorrera eta eboluzioa.** Juan María Álvarez Empanza.
- 5— **Guía Sentimental del Bidasoa.** Leonardo Urteaga.
- 6— **Instituto Oncológico de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa.** Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa e Instituto Oncológico.

COLECCION "DOCUMENTO"

- 1— **La foralidad guipuzcoana.** Antonio Cillán Apalategui. (Segunda edición).
- 2— **La Parroquia de San Pedro de Lasarte.** Manuel de Lecuona. (Agotado).
- 3— **Guipúzcoa en la edad antigua. Protohistoria y Romanización.** Ignacio Barandiarán. (Segunda edición).

- 4- **Caseríos de Guipúzcoa.** Iñaki Linazasoro. (Segunda edición).
- 5- **Azcoitia, cuna de pelotaris.** Jesús María Beristain.
- 6- **Mondragón: sus calles.** José Letona Arrieta.
- 7- **Glosas Euskaras.** José Luis Banús y Aguirre.
- 8- **La atención a la parálisis cerebral en Guipúzcoa.** Centro de Estudios Socioeconómicos Gaur. Asociación Guipuzcoana de Ayuda a la Parálisis Cerebral. ASPACE.
- 9- **De etnografía Vasca.** Juan Garmendia Larrañaga.
- 10- **Roncesvalles en Guipúzcoa.** (Tres Tomos). José María Mutiloa Poza.
- 11- **Esne eta haragi sortzearen azterketa Gipuzkoako baserrietan.** Lurgintza.
- 12- **Estudio de la producción de leche y carne en caseríos de Guipúzcoa.** Lurgintza.
- 13- **Partiendo de Guipúzcoa.** Iñaki Linazasoro.
- 14- **Orio en el remo. 75 años de historia.** Luis Azcue Aldaz.

COLECCION "JAKIN"

- 1- **Aviraneta o la vida de un conspirador.** Pío Baroja. (Agotado).
- 2- **Terranova.** Javier de Aramburu.
- 3- **Los gatos.** Ramón Zulaica.
- 4- **Lope de Aguirre, traidor.** José de Arteche.
- 5- **Biozkadak.** Luis Jáuregui "Jautarkol".
- 6- **Cuatro pasos por la India.** Albino Mallo.
- 7- **Ciudadanos ≠ Guipúzcoa.** Roberto Pastor.

COLECCION "PREMIOS LITERARIOS CIUDAD DE IRUN"

Serie "IPUIAK" (Cuento en euskera)

- 1- **Ja zaharra, ja zaharraren semea, jo eta ni.** José Ignacio Zubizarreta Múgica y Francisco Sagarzazu Badiola (Premio: 30.000 ptas.). / **Karakol preso.** Luis Haranburu Altuna. / **Mirmiño.** Nicolás Alday Eizaguirre. / **Buztan-txuri.** Mikel Goenaga Mendizabal. / **Jontxu'ren azkenengo itxasoratzea.** José María Etxaburu.

Serie "OLERKIAK" (Poesía en euskera)

- 1- **Gauean Oihu.** Joan Inazio Goikoetxea "Gaztelu" (Premio 1970: 40.000 ptas.).
- 2- **Biziaren Erroetan.** Joan Inazio Goikoetxea "Gaztelu" (Premio 1971: 50.000 ptas.).
- 3- **Bizitzako Urratsetan.** Martín Iturbe Balda (Premio 1972: 50.000 ptas.).
- 4- **Asekaitz.** Martín Iturbe Balda (Premio 1973: 60.000 ptas.). / **Maitaño.** Xabier Azurmendi (Finalista 1973).
- 5- **Hutsatik Esperantzara.** Juan María Irigoyen (Premio 1974: 75.000 ptas.). / **Heriotzaren eta bizitzaren mugetako ene hitzak.** Iñaki Zubizarreta (Finalista).
- 6- **Higidura berdez.** Mikel Zárata Lejarraga (Premio 1976: 125.000 ptas.).

Serie "POESIA" (Poesía en castellano)

- 1- **Truenos y flautas en un templo.** Antonio Colinas (Premio 1970: 40.000 ptas.).
- 2- **Largo regreso a Itaca y otros poemas.** Jorge G. Aranguren (Premio 1971: 50.000 ptas.).
- 3- **Los arriates.** Manuel Ríos Ruiz (Premio 1972: 50.000 ptas.).
- 4- **Retrato respirable en un desván.** Angel García López (Premio 1973: 60.000 ptas.). / **Ceremonial.** José Ledesma Criado (Finalista).
- 5- **El aire sombrío.** Alfonso López Gradoli (Premio 1974: 75.000 pesetas). / **Embriaguez sin día.** Francisco Toledano (Finalista).
- 6- **Palabra en pena.** José Carlos Gallardo (Premio 1975: 100.000 ptas.).
- 7- **Los trescientos escalones.** Francisca Aguirre (Premio 1976: 125.000 ptas.).

Serie "NOVELA" (Novela en castellano)

- 1- **En la muerte de Santa Cruz Jaramillo.** Luis José Sánchez Cuñat (Premio 1970: 75.000 ptas.).

- 2- **Las dimensiones del cuerpo humano.** José María Mendiola (Premio 1971: 100.000 ptas.).
- 3- **La otra vertiente.** Gregorio Gallego García (Premio 1972: 125.000 ptas.). (Segunda edición).
- 4- **Triste canta el búho.** Carlos Murciano (Premio 1973: 125.000 pesetas).
- 5- **Cuando vive la ilusión.** Manuel Linares (Premio 1974: 125.000 ptas.).
- 6- **En la jaula.** José María Álvarez Cruz (Premio 1975: 200.000 pesetas).
- 7- **La oscuridad somos nosotros.** Elena Santiago (Premio 1976: 250.000 ptas.).

Serie "ENSAYO" (Ensayo en castellano)

- 1- **Collage núm. 1.** Ricardo Ugarte de Zubiarraín (Premio 1970: 50.000 ptas.).
- 2- **Breve estudio de la novela española (1938-1969).** Mercedes Sáenz Alonso (Premio 1971: 75.000 ptas.).
- 3- **Cinco escritores periodistas.** José Acosta Montoro (Premio 1972: 75.000 ptas.).
- 4- **Algunos tópicos españoles y otras denuncias.** José Antonio Álvarez Osés (Premio 1973: 100.000 ptas.).
- 5- **Partidos Políticos Eclesiales.** José Luis de Orella y Unzué (Premio 1975: 200.000 ptas.).
- 6- **La Crisis de Guipúzcoa.** José María Mutiloa Poza (Premio 1976: 200.000 ptas.).

COLECCION "MANUALES"

- 1- **Setas - Perretxikoak.** Iñaki Linazasoro.
- 2- **Juan Ignacio de Iztueta.** Javier de Aramburu.
- 3- **Las Danzas del Corpus de Oñate.** Ignacio Zumalde.
- 4- **Los Amigos del País - Herri Lagunak.** Juan Ignacío de Uria.
- 5- **El Alarde de Fuenterrabía.** Javier de Aramburu.
- 6- **Iparragirre.** Iñaki Linazasoro.
- 7- **Canciones de Flauta (1.ª parte).** Mercedes Iglesias y Alicia Martín.

- 8- **Canciones de Flauta (2.ª parte).** Mercedes Iglesias y Alicia Martín.

COLECCION "OBRAS SOCIALES"

- 1- **Cartilla pecuaria del ganado vacuno (1947).**
- 2- **Protección al caserío (1950).**
- 3- **Lucha contra el cáncer. 50 años de mortalidad y morbilidad cancerosa española (1954).**
- 4- **Problemas de la cancerología actual (1960).**
- 5- **Índice bibliográfico de publicaciones belenistas y temas afines (1967).**

ALBUMES INFANTILES

- 1- **Escudos de la provincia de Guipúzcoa.** José Luis Zubiaurre.
- 2- **Montes y Ríos de Guipúzcoa.** (Agotado).
- 3- **Album de artesanía vasca.** Juan Garmendia Larrañaga. (Agotado).
- 4- **Personajes Guipuzcoanos (1.ª Serie).** Javier de Aramburu.
- 5- **Personajes Guipuzcoanos (2.ª Serie).** Javier de Aramburu.
- 6- **Arboles de Guipúzcoa. Gure herriko zuhaitzak.** Javier Hernández y Gregorio Fisac.

PRIMERAS OBRAS

- **Lo que es y lo que ha hecho la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa en los 25 primeros años de su vida (1921)** (Agotado).
- **Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa: su origen, sus garantías, su extensión, sus servicios.** (1936) (Agotado).
- **Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa (1945)** (Agotado).
- **El ahorro infantil en Guipúzcoa (1946)** (Agotado).
- **La Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa en sus primeros 50 años (1946)** (Agotado).
- **Las sucursales de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa (1949)** (Agotado).

FOLLETOS DE DIVULGACION

- 1- Educación en calculadoras para profesores de enseñanza media.
- 2- Teoría y práctica belenista (Introducción). Juan Pérez Cuadrado, Pbro.
- 3- Breviario Poético de la Navidad. Juan José Pérez Ormazábal.
- 4- La Navidad en la Filatelia. Norberto Chiapuso.
- 5- Conferencias acto entrega títulos Master (1974).
- 6- Cómo construiréis vuestro belén portátil. Juan Pérez Cuadrado, Pbro.
- 7- Educación y expresión infantil - Haur ezkundera eta expresio-bidea. Educadores de Villarreal y Zumárraga.
- 8- Figuras de Nacimiento. María Dolores Enríquez Arranz.
- 9- Alegría de Oria, monografía de Francisco Xavier de Iriarte (1786). José Garmendia Arruebarrena.
- 10- En aquel tiempo. Emilio Iturbide Orduña.
- 11- La pintura en los belenes. José Galán de Francisco.
- 12- Belén, luz del mundo. David Gonzalo Maeso.
- 13- Cómo se hacen los Christmas. Juan Pérez Cuadrado, Pbro.

OTRAS PUBLICACIONES

- 1- Palacio Provincial - Excmo. Diputación de Guipúzcoa.
- 2- Guía de la Asociación de Licenciados en Ciencias Empresariales.
- 3- Gipuzkoako Dantzak. Danzas de Guipúzcoa (partituras musicales). Juan Ignacio de Iztueta.
- 4- Somos Guipuzcoanos. Félix Elejalde. (4.^a edición).
- 5- Gipuzkoarrak gera. Félix Elejalde. (2.^a edición).
- 6- Guía Turística de Guipúzcoa. María Isabel Ormazábal Azurmendi.
- 7- Catálogo de Lepidópteros. Carlos Gómez de Aizpurua.
- 8- Viejas recetas de nuestros caseríos. José Castillo.
- 9- Cosas. Anecdotario de Euskalerría. Rafael Castellano de la Puente.
- 10- 26.º Curso Internacional de Criminología. Delincuencia e inadaptación juvenil.

DISCOS

- 1- Coro Easo, de San Sebastián.
- 2- Coro Ametsa, de Irún.
- 3- Coral Andra Mari, de Rentería.
- 4- Ochote Ertizka, de San Sebastián.

MAPAS

- 1- Plano de Irún y Fuenterrabía (1973).
- 2- Mapa de Guipúzcoa (1974).